

## Babes-laboreak hautatzea: zer egin eta zer ez egin sustrai-korapiloen nematodoen kudeaketan

Babes-laboreak gero eta ospe handiagoa hartzen ari dira nekazarien, aholkularien eta nekazaritza-sektoreko arduradun politikoen artean. Hazkuntza azkarreko labore ez-komertzialak dira eta sasotik kanpo landatzen dira. **Babes-laboreak erabiltzen dira higadura eta mantengaiaren galera murrizteko, lurzoruaren egitura hobetzeko, materia organikoaren edukia handitzeko eta lurzoruaren bizitza onuragarria bultzatzeko.** Babes-labore batzuek, gainera, mesede egin diezaiekete nematodo kaltegarriari modu naturalean aurre egiten dieten lurzoruko organismo onuragarriari, eta horrek tresna baliotsu bihurtzen ditu izurriteen kudeaketa integraturako (IPM, ingelesez).

Babes-laboreak sasotik kanpo ondo hazten badira eta hurrengo denboraldian sastraka bihurtzen ez badira, pentsa liteke erraza dela haiek hautatzea. **Alabaina, babes-labore guztiak ez dira seguruak egoera guztietan erabiltzeko.** Batzuk patogenoentzako elikagai-iturri izan daitezke, eta hurrengo denboraldira arte bizirik irauten lagundu. Iraganean, neguan soroak lugorri uzteak landareen patogenoak murrizten laguntzen zuen. Gaur egun, **garrantzitsua da lurzoruaren osasun-egoera ezagutzea, izurritei mesede egin diezaieketen babes-laboreak landatzea saihesteko.**

Horren adibide da koarentenako organismo gisa sailkatuta dagoen *Meloidogyne chitwoodi* sustrai-korapiloen nematodoa. Haren dentsitatea babes-labore jakin batzuen bitartez murriztu daiteke, hala nola bazka-errefaua, lollobelar ingelesa (ikus azpiko irudia), *facelia* edo zalkea, ostalari eskasak baitira, eta, horrenbestez, nematodoa kontrolatzen lagun baitezakete. Aldiz, olo beltza —oso hedatuta dagoen babes-laborea— oso ostalari egokia da *M. chitwoodi* nematodoarentzat, eta haren populazioa handitzea eragin dezake. *M. chitwoodi* ez badago edo hurrengo laborerako kaltegarria ez bada, seguru da olo beltza erabiltzea. Baina nematodo hori arazo bat dela jakinez gero, hobe da beste babes-labore bat aukeratzea (babes-laboreen ostalari-estatusa ezagutzeko, ikus, adibidez, [best4soil.eu](http://best4soil.eu)).

**Mezu nagusia:** Funtsezkoa da lursail baten egoera fitosanitarioari buruzko informazioa izatea. Informazio hori kontuan hartu behar da babes-laborea hautatzerakoan. **Babes-labore ugari daude merkatuan; aukeratu hurrengo labore nagusirako kaltegarriak izan daitezkeen patogenoentzat lagungarria ez den bat!**



### EGILEA(K)

**Hans Helder** [Hans.Helder@wur.nl](mailto:Hans.Helder@wur.nl)  
**Deisy Amora** [deam@novonesis.com](mailto:deam@novonesis.com)

### HERRIALDEA/ESKUALDEA

Europa

[nem-emerge.eu](http://nem-emerge.eu)



Funded by  
the European Union

Funded by the European Union under G.A. NO 101083727. Views and opinions expressed are however those of the author(s) only and do not necessarily reflect those of the European Union or European Commission. Neither the European Union nor the European Commission can be held responsible for them.